

BALIO PROPOSAMENAK

Gaur egun, teknologiarekin hainbat gauza sortu ditugu gure ongizaterako. Aurrerapen guzti hauek behar fisikoak betetzen laguntzen digute, baina behar psikologiko edo emozionalak oraindik betetzeko daude. Gaur egun bakardadea sentitzen duten pertsona heldu asko daude. Gainera, gizartearen zahartzearen ondorioz azken urteetan geroz eta pertsona heldu gehiago daude eta laguntza murriztua denez, ez da denetara iristen.

Gu psikologia karrerako hirugarren urteko ikasleak gara eta kurtso amaierara begira proposatu digute, gizartearen ongizaterako proiektu bat gauzatzea. Hori dela eta, gure senitartekoengan pentsatuz, *REMEMBER*, alegia, gogoratu euskaraz, produktua diseinatu dugu pertsona helduei laguntza bat emateko helburuarekin.

Buruari hainbat buelta eman ondoren, beraiei bizitza errazteko modu bat aurkitu nahi genuen. Hortaz, gure ideia, Gipuzkoako zaharretxetako helduei, txip baten bidez, gauzak gogoratzen lagundu eta bakarrik sentitzen diranean aktibatuko dena. Hau da, egunero beraiekin igarotzen duten pertsonen gain beste norbaitekin hitz egin edo denbora pasa nahi dutenean, gu beraiekin zuzenean kontaktuan jartzeko balioko du. Bereziki, alzheimerre dutenei laguntzeko diseinatu dugu, aitzitik, denon erabilerarako balioko luke.

Alde batetik, zaharretxetako langileek, txipa xiringa baten bitartez injektatuko die pertsona helduei. Era honetan, hauen odoretik osasun informazio guztia jasoko dugu (azukrea, burnia, hormonak, etb.) eta beraien gogo-aldarteak identifikatzea errazagoa izango da. Beraz, hauei zorientasunaren hormona (serotonina) jeisten zaienean gure sistemak alarma bat joko du eta zuzenean kontaktuan jarriko gara beraiekin.

Beste alde batetik, egunez jarri eta gauean kendu daitekeen audifono bat eramango dute. Bertatik mezu desberdinak iritsiko zaizkie pertsona helduei. Goizean esnatzean, zein egunetan bizi diren esango die, zein urtaro den, eguraldi iragarkia, egun berezi bat den hala ez, eta eguneko egitarauaz. Ordu desberdinetan, abisatzen joango zaie zenbat falta den bazkaltzeko ordurako, siesta garaia dela ohartarazteko edota mediku kontsultaren bat badute adierazteko.